



Eva Aranburu, Joxe Miguel Bereziartuaren emaztea. N.G.

Bereziartua sagardotegiak 150. urteurrena ospatu du

OSPAKIZUNA HILAREN 9AN
IZAN ZEN BERE-ARAN
BASERRIAN ETA UNE
HUNKIGARRIAK BIZI ZIREN

Astigarragako Bereziartua Sagardotegiak bere 150. urteurrena ospatu zuen joan den hilaren 9an Bere-Aran baserrian. Ekitaldian Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Astigarragako Udaleko ordezkari instituzionalak hartu zuten parte, Bereziartua familiaren lagunik gertukoenekin batera. Ospakizunean omenaldietarako tarte ere egon zen eta sagardotegiko lau bezeroei (Paulino Portu, Joaquín San Sebastián, Emilio Manterola eta Txomin Arrillaga) egindako lana aitortu zitzaion. Izan ere, laurek txotx denboraldi guztietan eta sagardo berri bakoitzaz gozatu baitute sagardotegi honetan. Bestalde, txotx denboraldiaren amaierako jaialdi guztietan musika giroa jarri duen Maixa Lizarri-

bar trikitilariak eta, jakina, Astigarragako herriak ere bere omenaldi berezia jaso zuten ere.

Sagardo naturalaren ekoizpenean erreferentziazko sagardotegia da Bereziartua eta familia honen laugarren belaunaldiak bere arbasoen identitatea, sagarrak, lurra, tradizioak eta bezero leialei errespetua mantentzeko gogotik lan egiten du.

Etorkizun oparoa

150 urteko ibilbidea du etxe honek, 1870. urtean hasi zena. Familia honetako hirugarren eta laugarren belaunaldiak tinko dabilta lanean oraindik, eta etorkizun oparoa duela agerian dago, sagardoarekiko interesa erakusten duen bosgarren belaunaldiari esker. Sagardoarekin batera bizi den familia da, sagardo egiteko prozesua ez dela matematika hutsa dakiena. Mimo, zainketa eta dedikazioa baizik, gauzak egiteko era propioa ere badute eta hala segi daitezela urte askoan! ■ N.G.